

Inflazioaren teoria integral baterantz

Xabier Renteria Uriarte
EHUko irakaslea

Inflazio-teorien azken joerak eta arazoak gainditzeko aurrerapausu batzuk proposatzen ditugu. Asmo horrekin, a) ezohizko abiapuntu bat hartzen dugu inflazioa ulertzeko; b) gizarte taldeen borrokaren garrantzia garatzen dugu; eta c) horren guztiaren inplikazio teorikoak aztertzen ditugu. Bide honi jarraiki, inflazioaren ikuspegi integral bat lortzen dela dakusagu.

In order to overcome the last trends and problems of inflation theories, we suggest the following steps. We aim to: a) take an unusual starting point to insight into inflation; b) highlight the significance of social groups fight; and c) analyse the theoretical implications of the above mentioned. All this will surely lead us towards an integral view on inflation.

Azkenaldian inflazioaren ohizko teoriaren eraberritzeak bi berezitasun nagusi izan ditu. Bata, azalpen koiunturalen (eskari, kostu edo moneta-inflazioen) batasun eta nahasketa gero eta handiagoa; bestea, egiturazko azalpenen behar handia. Artikulu honetan bi joera hauek eta inflazioaren azaldu gabeko aldeak gainditzeko aurrerapauso batzuk proposatzen ditugu. Asmo horrekin, eta ohizko teoria horiek atal batean gogoratu eta gero: a) ezohizko abiapuntu bat hartzen dugu inflazioa aztertzeko; b) abiapuntu horrek dakarkigun gizar-te-taldeen borrokaren garrantzia gartzen dugu; eta c) honen guztiaren inplikazioak aztertzen ditugu, bai teoria eta bai politika mailan. Ildo hori jarraituz, inflazioa era integralean ikus daitekeela frogatu nahi dugu.

1. Inflazioa, fenomeno konplexua

Inflazioa fenomeno konplexu eta ulergaitzenetariko bat da ekonomia arloan. Hala ere, gai honi buruzko idazkiek bi norabide jarraitu ohi dituztela esan dezakegu: alde batetik, sakontasun txikiko definizio sinple eta ildo teorikoak jarraitzen dituzten materialak (normalki eskuliburuak), eta bestetik, inflazioa ekonomiaren desoreka orokor eta sakontzat hartu nahi dituzten ikaslan landuagoak (ikus adibidez H. Frish 1988).

Gehien erabiltzen den inflazioaren definizio sinplea hau da: «prezioen maila orokorraren gorakada iraunkorra». Definizio hau ez da antzinako eskuliburuetatik asko desberdintzen (inflazioa % 3 baino gehiagoko prezio-gorakada zela esaten zuten). Ildo honetatik, inflazioaren analisiak ez du

arazo handiegirik ekartzen, prezioen gorakadari eskatzen zaion bakarra hurrengo baita: ekonomian orokorra, eta denboran iraunkorra izatea. Problema bakarra honen arrazoiak aurkitzea izango litzateke.

Definizio hauek erreferentzia egiten diete ekonomiako azken produktu eta zerbitzuen gorakadari. Baina produktu eta zerbitzu finalen gorakada ezin azal daiteke beste prezioen garapena kontuan hartu gabe: soldata, interes-tipoak, ganbio-tasak, dibidendoak, etab. Hau da, «inflazio» hitza aipatzeagatik bakarrik, ekonomiaren prezio guztiak izendatzen ditugu, eta ez azken prezioak bakarrik. Horregatik, ekonomiako prezio *guztien* eboluzioa azaldu beharko dugu, eta ez soilik prezio batzuk beste batzuen gain.

Hala izanik, inflazioa orokorrago aztertu nahi badugu, definizio tradizionalak alde batera utzi beharko ditugu. Hauek inflazioak izan dezakeen sintoma baten erreferentzia besterik ez baitira, eta ez inflazioarena berarena. Horrela, inflazioa ekonomiaren barne desoreka konplexu eta misterioitsu bezala hartu behar dugu. Azken prezioen gorakada bere efektuen artean bat da, agian garrantzitsuena, baina ez bakarra¹. Ontzat emango genioke sendagile bati, konparaketa bat egiteko, nafarrerria azalean sortzen dituen kolorazioak aipatuz definitzea, eta ez gaixotasunaren gorputz barneko prozesuak azalduz?

Gero eta gehiago, inflazioa prozesu bezala hartzen da, eta ez neur daitekeen prezio-aldaketa ekonomiko huts bezala. Teoria tradizionalen barnean, eredu berriek *prozesu* inflazionarioan

1. Beste efektuak dira, adibidez, itotze ekonomikoa (nahiz eta prezioen ezinezko igoera iraunkor eta orokorra egon), esparru ekonomikoen desartikulazioa, errentaren birbanakuntza, egitura produktiboan bihurturak, etab.

bertan jartzen dute arreta. Halere, eredu ekonomiko hauek partzialegiak izaten dira, ez dira baliagarriak ekonomiaren desoreka *orokor* bat aztertze-ko. Lan honetan, orokortasun horren alde desberdinak kontuan hartuko dituen bide bat aurkitu nahi da.

2. Inflazioaren teoria tradizionalak

2.1. Inflazio-motak eta teoriak

Inflazioa moneta-fenomeno bezala

Inflazioa moneta-fenomenotzat jotzen duten autoreek esaten dutena ondokoa da: ekonomian gertatzen den prezio-igoera oro, moneta-eskaintzaren prezioaren igoeran oinarritzen dela, hau da, inflazio-mota oro, moneta-fenomeno baino ez dela.

Iritzi honen defendatzaile diren autore monetaristek xvi. mendeko azkenengo urteetan eraiki zen teoria kuantitatiboa dute abiapuntutzat. Oinarria, Fischerek hobetutako formula kuantitatiboa da: $MV=PT$. Honek adierazi nahi duena hau da: ekonomiaren masa monetarioa bider diruaren zirkulazioaren abiadura (dirua eskuz esku pasatzera-koan hartzen duen abiadura), prezioaren maila bider ekonomiaren transakzio errearen berdina dela. T eta V epe laburrean finkoak direnez, prezioen maila (P) eta moneta-eskaintza (M) proportzionalak direla adierazten da.

Monetaristek ekuazio kuantitatibo hau sakontzeko hamaika ekuazio eta eredu sistemiko berri eratu eta perfektionatu dituzte. Ekuazio hauen guztien

laburpen gisa hau har daiteke: $M = k P Y$. Honetan, moneta-masaren maila, k konstantea bider iharduera erreale-ko baliokidea da (Fernández Díaz 1987).

Hala ere, konklusioa bera da beti: Friedmanen hitzen arabera, «inflazioa moneta-fenomenoa da beti eta mentu guztietan» (ikus, adibidez, Friedman 1971). Inflazioa moneta-eskaintzaren gorakadak xedatzen du, eta kitto. Baieztapen honek gobernuen ekonomi iharduera salatzeko beste arrazoi bat ematen die monetaristei, hauek inflazioaren agente bakarrak direla argudiatuz, ez dakitelako edo ez dutelako behar bezala zehaztu nahi ekonomiarako zein izan beharko litzatekeen moneta-eskaintza egokia².

Eskari-inflazioa edo inflazio ziklikoa


Inflazioa berez eskari-fenomenoa dela defendatzen duten autoreek prezioetan gertatzen diren gorakako tentsioak gehiegizko eskariak eragiten dituela esaten dute, eskaintza agregatuak ezin duelarik gehiegizko maila hau asetu.

Eskari-inflazio kontzeptua ekarpen keynesiar bat da eta bere hastapen-tako argudio teorikoa; horregatik, enplegu betearen egoera ekonomikoarekin dago lotuta. Egoera honetan, eskari agregatua bere edozein osagarriren-gatik igotzen bada, eskaintza agregatuak ahalmen produktiboa topean duenez, irteera bakarra prezioen igoera izango da³. Hurrengo irudiak adierazten duenez, enplegu betean eskaintza (SS) zurruna da. Egoera horretan,

2. Gauzak honela, uler daiteke egungo gobernua guda osteko espantsio arokoak baino ezgaiagoak izatea. Nolatan hori, inflazio baxuko garai horietan gobernuek gomendio keynesiarrak jarraitzen bazituzten? Egun, aldiz, gobernuek gomendio monetaristak jarraitzen dituzte eta inflazioa askoz altuagoa dugu.

3. Hala eta guztiz ere, ekonomia zabal baten eskariaren goraldia kanpora desbidera daiteke, inportazioetan gauzatua; kasu hau esandakoaren salbuespena izango litzateke.

eskariaren igoerak (DD-tik DD'-ra) prezioen igoera altua ekartzen du. Eskaintza malgua denean, aldiz, eskariaren igoera batek (dd-tik dd'-ra) prezio-igoera txikiagoak ekarriko ditu.



Era ulergarrian azaltzeko, enpresari batek berak eskainitako produktuen eskaria igotzen dela ikusten badu, baina ezin badu bere produkzioa igo (bere enpresa ahalmen osoan lan egiten ari delako jada), bere erantzun logikoa prezioak igotzea izango litzateke (erabat ziur baitago eskatzaile nahi-kok erosten jarraituko dutela). Enplegu betearen egoeran, hau jarrera orokorra izango litzateke.

Inflazioaren azalpen keynesiarra zalantzan jarri zen hirurogeiko hamarkadaren azkenetan sortu eta gaur egun mantentzen den krisialdian. Nahiz eta desenplegua izan, enplegu beteko egoeretatik oso urrun, inflazioa askoz nabariagoa gertatu zen. Keynesiar batzuk euren teoria aurrera ateratzen saiatu ziren, baieztatuz enplegu betea ez dela maila bat, tramu bat baizik. Horregatik, inflazioa izan zitekeen "erabateko" enplegu betean ez egon arren.

Gaur egun, eskari-inflazioaren aurrean jarrera bitxiak aurkitzen ditugu. Alde batetik, inflazio-mota honen ideia tradizionalaren arabera, gerta ez daitekeen fenomeno da (errealismo apur batek keynesiarrek "enplegu beteko

tramu baxu" batean gauden baieztapenetik urrunduko gaitu). Bestalde, inflazioaren egungo osagarri garrantzitsu bat eskari-inflazioa dela orokorki onartzen da. Batez ere hedapen ekonomikoaren garaietan hitz egin ohi da honi buruz.

Kostu-inflazioa

Kostu-inflazioa kostu produktiboren baten igoerak ekartzen du, igoera hau azken preziora eramaten delako. Hau da, tentsioak ez dira ondasun eta zerbitzuen merkatuan sortuko, eskari-inflazioan bezala, faktoreen merkatuan baizik.

Orokorrean, kostu-inflazioari buruz hitz egiterakoan, soldata-inflazioa aipatu ohi da. Gehienetan, kontzeptuak ez dira zehazten eta suposizio asko egia argitzat hartzen dira.

Ikerketa sakon batek, ordea, bi alde garrantzitsu aipatu behar ditu:

1) Soldaten kostuez gain, enpresaren mota guztietako kostuen aipamena. Hau dela eta, soldata kostuak ez diren kostuez ere aritu beharko genuke, baita irabaziez ere (inbertsioarekin lotuta dagoen arriskuaren kostutzat hartuta).

2) Kostuen igoera azken preziora eramaten den eraren aipamena. Orain ikusiko dugun bezala, transmisio-bide hauek era ezberdinetako inflazioak lotzen dituzte.

Soldata-kostuen inflazioa

Inflazio-mota hau ondasun edo zerbitzuen azken prezioetako tentsioek soldaten igoera kontuan hartzen dutenean emango da.

Harreman hau ez da askotan suposatzen den bezain zuzena. Soldaten igoerak inflazioa eragiteko hurrengo igoerak gertatu behar dira⁴:

1) Produktibitatea soldatak baino neurri txikiagoan igotzea, honela soldaten igoera soldata-kostuen igoerara bihur dadin. Soldaten igoerak produktibitatearen igoerekin batera baldin bada toz, soldaten kostuak ez dira igoko eta ez da azken prezioetan presiorik egongo.

2) Beste kostuak ez daitezela jaitsi, soldata-kostuen igoera hau (eman bada) kostu osoen igoerara bihur dadin. Soldata-kostuak igo arren, beste kostu batzuk jaisten badira, ez du eraginik izango kostu osoetan eta beraz prezioetan ere ez.

3) Irabaziak ez daitezela jaitsi, kostu osoen igoera (izan bada) prezioen igoerara bihur dadin. Kostu osoak igo arren, irabaziak jaisten badira, ez du eraginik izango prezioetan, prezioa bi osagarrien batura baita.

Hiru baldintza hauek eskematikoki laburtuz gero:

$$\Delta w \Rightarrow \text{soilik } \Delta w > \Delta P_{\text{bata}} \Rightarrow \Delta K_w \Rightarrow \text{soilik ez bada } \nabla K_{\text{beste}} \Rightarrow \Delta K_{\text{osoak}} \Rightarrow \text{soilik ez bada } \nabla M^{\text{oz}} \Rightarrow \Delta P$$

Baldintza hauek bi harreman ekonomiko sinpletatik ondorioztatu ditugu: soldata-kostuen osagarriak ($\Delta K_w = \Delta W - \Delta P_{\text{bata}}$), eta azken prezioen osagarriak (AZKEN PREZIOA = IRABAZIAK + SOLDATAZKOAK EZ DIREN KOSTUAK + SOLDATA KOSTUAK).

Inork ez luke oinarritzko logikaren azterketa bat gaudituko ideia honi kontra egitekotan: agregatu bat ez da zuzenki haziko bere osagarrien bat handitzerakoan. Beraz, soldata-kostuek ez dute halabeharrez handitu beharko soldaten hazkundearekin. Era berean, prezioa ez da halabeharrez haziko soldata-kostuen hazkundearekin.

Beste agerbide bat eman daiteke Pen erlazioan oinarrituz gero. Penen formula sinplifikazio honetatik matematikoki ondorioztatzen da: errenta nazionala soldaten masa osoa gehi irabazien masa da ($W+B=Y$). Batuketa honen osagarriekin matematikoki jardunez gero, erlazio hau lortzen da:

$$(w/p / y/L) + B/Y = 1$$

non w/p = soldata erreala, y/L = produktibitatea eta B/Y = irabazien partaidetza errenta nazionalan.

Hasierako egoera ekonomiko hau orekatuta dagoela suposatzen badugu, prezioen egonkortasunaren aldetik ere, soldata errealen igoerak (w/p), produktibitatearen gutxitzeak (y/L) eta errenta nazionalaren irabazietan partaidetzaren igoerak (B/Y) espresioa bat baino gehiago izatea eragin dezakete, hau da, inflazio-desoreka bat. Era berean, soldata erreala igotzen bada baina besteetarikoa bat gutxitzen bada, ez du efektu negatiborik eragingo.

Laburbilduz, ikaslan sakon batek zera adieraziko luke: a) soldata-prezio harremana ez da hain zuzena eta sinplea; eta b) beste faktore batzuk aintzakotzat hartu behar dira. Honela,

4. Kondizio hauek Philips-en bihurtune-prezioen igoera eta langabeziaren arteko harreman bezala hartzeko beharrezko baldintza berdina dira, soldaten igoera eta langabeziaren arteko harremanean oinarriturik.

inflazioaren azalpenean irabazien edo soldatazkoak ez diren kostuen garrantzia ondorioztatzen da.

Soldatazkoa ez den kostuen inflazioa

Zenbait faktore merkatuetan sortutako inflazio-tentsioak produktu eta zerbitzuen prezioen igoerara trasladatzen direnean gertatzen da. Jakina, ez gara ari lan-merkatuaz, beste faktore merkatuez baizik.

Aurretik emandako erlazio sinplea hartuta, suposa dezagun soldatazkoa ez den prezioen igoera gertatzen dela. Soldata-kostuak edota irabaziak mantentzen badira, edo ez badira neurri txikiagoan igotzen, igoera hau azken preziora bihurtuko da.

$$\Delta \text{AZKEN PREZIOA} = (\text{IRABAZIAK} +) \Delta \text{SOLDATAZKOAK EZ DIREN KOSTUAK} (+\text{SOLDATA KOSTUAK})$$

Honela, inflazio-mota honek hainbat kostu hartzen ditu kontuan: lehengaiak, teknologiaren ordainketak, enpresa-kudeaketaren zurruntasuna, etab. Historian gehien ezagutzen diren kasuak lehengaien inflazioak dira, zehazki petrolioarena, edo zink eta kobrea-rena krisialdiaren hastapenetan.

Irabazien inflazioa

Irabazia inbertsio guztiek dituzten arriskuaren ordaintzat har daiteke, hau da, enpresen arriskuaren kostutzat (hau ekonomiaren eskola ortodoxoan egin ohi dute). Horregatik, irabazien aldi bateko igoerak sortutako produktuen eta zerbitzuen azken prezioen igoeren fenomenoaz azertu behar da.

Hau berrikus dezakegu, era oso sinple batean, azken prezioaren ebakipena eginez gero:

$$\Delta \text{AZKEN PREZIOA} = \Delta \text{IRABAZIAK} (+\text{SOLDATAZKOAK EZ DIREN KOSTUAK} + \text{SOLDATA KOSTUAK})$$

Hau da, nahiz eta soldata edo beste faktore batzuen kostuak ez diren igotzen, irabazien igoerak azken prezioetan igoera ekar dezake.

Idea bera argudia genezake Penen formulari oinarrituz gero: soldata erreala eta produktibitatea iraunkor mantentzeko arren, irabazien partaidetzaren igoerak inflazioa desegonkortuko du.

Nahiz eta irabazien inflazioaren posibilidadate teoriko hau argia izan, egungo gogoeta ortodoxoak errealtatean existituko ez balu bezala tratatzen du, ez baitu inoiz hartaz hitz egiten. Hala ere, errealtatean nahiko ohizkoa izan daiteke. Edozein enpresak, izan dituen kostuak kontuan hartzen ditu beti, merkaturatu sortzen duen ondasun eta zerbitzuen eskaria aztertzen du, eta ahal den irabazi handiena ateratzen saiatzen da. Merkaturatuaren eskariak prezio handiagoak onartzen duen aldiro, enpresak prezioak igoko ditu nahiz eta kostuek aldatu gabe iraun.

Gainera, jokaera hau oso erraz gerta daiteke konpetentzia perfektutik oso urrun dauden merkatuetan. Eta gaur egungoa bezalako egoera ekonomikoan, egoera oligopolistiko argiak daude (zeinetan enpresak saldutako produktu edo zerbitzuen eskari osoa bereganatzen duen).

Ekonomia ortodoxoa, alde batetik, saltzaileak konpetentzi murriztasunik gabe "administratu" edo xedatutako prezio hauetaz mintzatzen da; bestetik, ez du irabazien inflazioa ametitzen. Inkohorentzia argia da.

Gauzak honela, inflazio-prozesua irabazien neurrigabeko igoeraren ondorioa izan daiteke. 1985-89 etapan, adibidez, zenbait ikaslanek soldaten igoera % 6 ingurukoa eta irabazien igoera % 12-15 ingurukoa izan zela antzeman zuten. Zer dela eta ez zen soldata-inflazioaz besterik hitz egin?

Inflazio estrukturala

Zabalki onartzen den bezala, inflazio estrukturala zurruntasun estrukturalak sortutako inflazioa izango litzateke. Ikuspuntu benetan estrukturalista baten arabera, ordea, inflazioa sistema beraren estrokturak eragindako inflazio bezala definitu beharko genuke, zurruntasuna egon nahiz ez.

Inflazioa eragiten duten prozesu garrantzitsuenen artean hauek aipa genitzake:

– Klase eta botere-taldeek borroka: ekonomian agenteak elkarlanean aritzen dira irabazi handiena lortu nahian, eta horretarako, bere produktu eta zerbitzuen (bai hozkailua, lan indarra, finantza-kudeaketa edota alogeran dagoen pisua izanik) salmenta-prezio handiena lortzen saiatzen dira. Honek inflazio-prozesua dakar.

– Enpresen-kontzentrazio maila hazkorra (monopolio edota oligopolioen existentzia): merkatu bat kontrolatzeko enpresa batek edo enpresa-talde batek duen boterea gero eta handiago bada, botere hau gero eta handiago izango da baita prezioen gainean erabakiak hartzeko eta hauek eskatzaileei inposatzeko ere. Azken hauek ez lukete beste enpresa batek prezio baxuago batean eskainitako produktu edo zerbitzu bat erosteko posibilitaterik izango.

– Kapitalaren garestitzea finantza-sektorearen zurruntasun edo joerengatik: sektore honen efizientzia eza dela eta (administrazio- edo kudeaketa-kostu handiak, iharduera oligopolistikoak, etab.), enpresek ordaindu behar dituzten komisio edo finantza-interesak neurrigabeki handitzen dira eta hauek azken prezioetara heltzen dira. Merkataritza-sektorean ere ohizko arazo bat agertzen da bitarteko gehiegi dagoenean, egiten zaizkien ordainek azken prezioa igo egiten baitute.

– Inportaturiko inflazioa: ekonomiko-ki ahulagoak diren herrialdeak, herrialde indartsuen inflazioa jasatera behartuta aurkitzen dira, bai dependentziak sortutako inportazioen eskakizun zorrotzengatik edo baita indartsuagoa den herrialdearen dibisaren erabilpen internazionalagatik ere.

– Protekzionismoa: kapitalismoaren krisialdiak protekzionismo tentsioekin lotuta daude, inflazioa eragiten dute (inportazioetan mugasari edo eragozpen handiagoak ezartzerakoan; hauek barne-kompetentzia txikiago bat ahalmentzen dute eta epe luzera prezio handiagoak ekartzen dituzte).

2.2. Inflazio-espinala

Eskari-inflazioa eta kostu-inflazioaren arteko interakzioa

Tradizionalki inflazio-prozesuek euren burua nola elikatzen duten azaltzeko eskariaren eta kostu-inflazioaren arteko interakzioa erabili izan ohi da (aurrerago, gizarte-taldeek borrokan oinarritutako beste azalpen bat eman go dugu).

Zergatik ekartzen du eskari-inflazioak kostu-inflazioa? Eskari-inflazioa gehie-

gizko eskari batek dakartzan prezio altuagoekin lotuta dago. Prezio handiago hauek irabaziak igoko dituzte, eta hauek tariko batzuk kontratatuzera dedikatuko dira. Kontratazio berri honek soldatak igoko ditu, kostuen inflazioa sortuz.

Eta nola ekartzen du kostuen inflazio honek eskari-inflazio berri bat? Kostu-inflazio hau dela eta, enpresariak ezin izango dute aurretik bezala produzitu (kostuak igo baitira). Mozkinak mantentzeko, edo prezioa igoko dute edo eskaintza jaitziko dute, gehiegizko eskaria sortuz.

Azalpen hau baliagarria zen hedapen garaian, hirurogeita hamarreko hamarkada arte, baina ez gaur egun. Erlazio hauek ez dira indartsuak langabezia duen ekonomian (adibidez, langileen kontratazioa bultzatuzera bideratutako irabaziek langabeturik ez dagoenean soilik igoko dituzte soldatak, lanean jadanik badirenak erakartzeko dei bezala erabili behar direlarik).

Mota honetako azalpenak prezio-soldata espiralaren prozesu soziala adierazteko era ekonomizista bezala agertzen dira: langileek soldaten eros ahalmena mantentzeko borrokari ekiten diote, hauek enpresen prezioen igoerarekin erori baitira. Era berean enpresariak, soldaten igoera honen aurrean irabaziak mantentzeko, prezioak igotzen dituzte berriro. Ezin daiteke jakin prozesu hau non hasi eta non amaitzen den, arraultza eta oiloaren paradoxan bezala.

Horregatik, zenbait autorek inflazio-mota desberdinak kontuan hartu baino, nahiago dute inflazioa fase desberdinak dituen prosezutat hartu. Hedapen garaian, zikloek eskari-inflazioa

eragitera jotzen dute (soldata eta enplegu-igoerak lagunduta) eta aldiz atzerapen garaietan, kostu-inflazioa eragitera (produkzio eta enplegu mailaren jaitzieraekin baina soldaten igoerarekin). Azken fase hau “monetal-prosezuaren doitzea” izango litzateke.

Azkenik, “erakustoki efektu” edo “soldata-soldata espiral” antzeko bat dagoela esan beharra dago. Hau, langileak beste sektoreetako soldaten parekidetasunagatik borrokatzen direlako gertatzen da. Produktibitate baxuko sektoreetan, produktibitate handiagoa duten sektore pribatuen soldata lortzeko saiakerak egin daitezke. Hori ez bada, sektore publikoaren soldatak eta lan-baldintzak parekatu nahian ibil daitezke. Azken posibilitate hau ere sarri gertatzen da: sektore publikoan lan egiten duten politikari askok, soldata handiagoa zilegitzat jotzen dute, sektore pribatuan gehiago irabaziko luketela argudiatuz⁵.

Aurretiko inflazioa

Espektatiben rola egungo inflazio teoria neoklasikoetan neurtezinezko papera jokatzen du, eskari-kostu interakzioa azaltzeko.

Argi dago espektatibek inflazio-tentsioak sendotzeko rol garrantzitsua jokatzen dutela. Alde batetik, sarritan gertatu ohi da enpresariak, merkatuko eskariak ametitzen badu, beren prezioak “gaur” igotzea, “bihar” emango diren kostuen igoerei aurre egiteko mozkinak izateko. Bestetik, ohizkoa da baita sindikatuek espero edo aurreikusiten dituzten prezioen igoeren arabera negoziatzea ere, berriro eros ahalmena gal ez dezaten.

5. Eta ni, herriarenganako maitasunagatik egiten zutelakoan...

Dena den, espektatibek jadanik den inflazioa nola errotzen den azal dezakete, baina ezin dute azaldu inflazioa zergatik ematen den. Inflazio baxuen garaian inflazio baxuak aurrikusi egiten dira; beraz, horrek ez du inflazio handiagoa ekarriko. Espektatibek bai lagunduko dute aldiz, inflazio altuak denboran aingura botatzen.

Bestalde, espektatiben papera eskari-inflazioa eta kostu-inflazioaren arteko erlazio ekonomikoen era psikologiko bat besterik ez den galdetzeak zentzu osoa du.

Bukatzeko, azpimarratu beharra dago espektatibak ez direla aldagai kuantitatiboa; eta gainera, ez dira iraunkorrak. Horregatik, zaila da bere eragin ekonomikoa neurtzea (inkestentz bidez neur daitezke soilik). Halere, argi dago, asko edo gutxi, politika ekonomikoaren ondorioak ezerezten dituela.

2.3 Nazioarteko hedapena

Hau ez da normalean tratatua den gaia, baina ekonomia irekiago batean, gero eta garrantzi handiagoa du.

Inflazioa beste herrialdeetatik barnera daiteke; kasu horretan, *inportatutako inflazioaz* arituko gara. Bi bide daude: inflaziopean dauden inportazioen eskaria zurruna izateagatik, edo herrialde indartsuenaren dibisaren erabilpen internazionalagatik.

Atzerrian inflazio-tentsioak badaude, gure herriak atzerrian erositako produktuen kantitate handiaren txikiaren prezioa igoko da. Honek arazo larria ekarriko du, batez ere zurrunki eskatzen dugun ondasuna denean. Adibide argiena PLEEEk 1973. urtean petrolioa-

ren prezioa igotzea bururatu zitzaionekoa dugu. Beste adibide bat, Hegoaldeko herrialde gehienek duten desabantaila da. Bere esportazioen oinarria diren abelur produktuak, historikoki, etengabe jaisten dira. Aldiz, bere produktzio-egiturarako beharrezkoak diren teknologi inportazioek epe luzera igotzeko joera dute (Fidel Castroren arabera «saltzen dugun azukrearen prezioa jaisten den neurrian, igoten da erosi behar ditugun traktoreena»). Azkenean, herrialdeen inflazioari inportatzen duten herrialdeen inflazioa gehitzen zaio.

Bestalde, nazioarteko ekonomiaren lehenengo postuetan daudenek beste herrialdeetara esportatzen dute inflazioa. Hau gertatzen da, herrialde indartsu hauek ganbio internazionalaren tresnatzat euren moneta erabiltzen dutenean⁶. Eta honek moneta-masa eragitea ahalbidetzen du. Estatu Batuek, adibidez, kanpo-ordainketei aurre egiteko bere moneta eskariaren gehiegizko hedapena bultzatu dute zenbait mementu historikotan, honela nazioarteko merkaturak dolarrez betetz. Herrialde ahul baten moneta, ordea, ez da askotan nazioarteko ordainketa egiteko onartua izango, eta horregatik dibisa indartsuak dituen herrialdearen inflazioa barneratuz joan behar izango du. Bigarren kasu honetan, herrialde ahulek inflazio-tentsioak izango dituzte, horri esker herrialde indartsuek tentsioak arinduko dituztelarik.

3. Teoria integral bateranzko aurrerapausuak

3.1. Teoria tradizionalen balio eskasa

Inflazioaren teoria tradizional guztiek bi ezaugarri agertzen dituzte beti:

6. Erregulista frantsesek sakonki aztertu dute gai hau.

– Urritasuna, teoria bakoitza banaka hartuz gero.

– Teilakatzea, teoriak multzoan hartuz gero.

Ezaugarri hauek arrazoitzeko, ikus ditzagun teoria hauek.

Hasteko, moneta-inflazioari buruzko ikuspegiari ohar batzuk egin behar dizkiogu:

1. Egia da, moneta-masaren hazkundera iharduera ekonomikoa baino arinagoa denean, inflazioa sortzen dela. Moneta eta bilete gehiago ibiltzen badira, eta ez bada ondasun gehiago ibiltzen, edo ez badira zerbitzu gehiago eskaintzen, prezio-erlazioa nahitaez igoko da, ondasuna edo zerbitzua moneta-unitatetan neurtzen dituelako.

2. Baina iharduera erreala eta moneta-masa abiadura berdinean igotzen badira, prezioa ez da aldatuko, arrazoi beragatik (teoria ekonomikoen aldeetik ikusita, produktu eta zerbitzuen eskaintza agregatu zabalago batek prezioak jaitsiko ditu).

Hau da, inflazioak bi esfera ekonomikoren arteko harremanarekin du zerikusia, eta ez moneta-esferarekin bakarrik. Eragiketa erreala baino handiagoa den moneta-eskaintzaren igoera prezioen mailan igotzea normala da: agente ekonomikoen diru gehiagok zirkulatzen duela antzematen badute, kontzienteki nahiz ez, diru hau eskuratzen saiatuko dira. Horretarako, saltzen dituzten ondasun edo zerbitzuen prezioak igoko dituzte. Baina igoera hori, agenteek aberastasuna eskuratzen saiatzen direlako etorriko da, eta ez moneta-igoera hutsarengatik.

Idea hau oinarritzat hartuz, zenbait baieztapen monetarista eztabaida daiteke. Eskola honen arabera, berak definitu gabeko edozein inflazio-motaren oinarrian, moneta-hedapena aurkitzen da. Baieztatzen dute, adibidez, kostu-inflazioa ez dela emango agintaritzak ez badu diruaren kantitatea soldata-eskakizunak betetzeko behar beste igotzen. Bestalde, esaten dutenaren arabera, eskari-inflazioa emateko eskari funtzioak hazi behar du, baina hau ez da haziko aurretik moneta-eskaintzaren igoerarik ez badago.

Ez dira baieztapen okerrak, baina partzialak dira. Prezioen maila orokorraren igoera bat soilik emango da baldin eta aurretik, edo tarte-berdinean, moneta-eskaintzaren igoera gertatzen bada. Hau da, prezioak ez dira igoko, hau laguntzeko diruaren zirkulazioa zabalagoa ez bada. Prezio bat igotzen bada, baina ez badago produktu edo zerbitzu hori saltzeko moneta gehiago, orduan prezioa bere aurreko mailara itzultzen da (ondasuna ez saltzea ere gerta daiteke; orduan, epe luzera merkatutik desagertuko da). Azkenik, moneta-masa igotzen bada eta iharduera erreala ez badio jarraitzen, inflazioa sortuko da (produktu edo zerbitzu bakoitzari moneta-kantitate handiagoa dagokio, eta beraz, prezio handiagoa ere bai).

Laburki esanda, moneta-eskaintzaren igoera beharrezko baldintzat jotzeko daiteke inflazioaren sorrerarako, baina honek ez du esan nahi moneta-igoera prezioen igoeraren *arrazoia* denik. Arrazoiak asko izan daitezke, eta beti ekonomiaren prezio ezberdinen aurrean subjektuen aberastasun-jokaera maximizatzailearekin lotuta daude, ikusiko dugun bezala.

Bigarrenez, eskari-inflazioari dagokionez, ez da zaila gaur egun adituak hartaz aritzea, batez ere hedapen ekonomikoaren garaian. Baina, egiazki, eskari-inflazioaren teori tradizionaletik ezin daiteke inflazio-mota honen existentzia argudiatu, gaur egungo desentplegu-tasa altuak direla eta. Enplegu betea ez bada, nola gaindituko du eskariak eskaintza, eta inflazioa sortu? Erantzuna hasiera batean pentsa daitekeena baino sinpleagoa da: baliteke eskaintza agregatua zorrotza ez izatea enplegu betean aurkitzen delako, baina bai krisialdi estruktural baten barruan gaudelako.

Gogoeta honetan oinarrituz, eskari-inflazioan bi etapa desberdin ditza-kegu:

– 70.eko hamarkada baino lehen: iharduera ekonomiko bizkorak eskari agregatuaren mailen igoera ekartzen zuen, eta eskaintza agregatuak ezin zuen behar bezala erantzun, enplegu betearen produkzio-mailetara hurbiltzen zelako. Honek eskari-inflazioa ekartzen zuen. Eskari-inflazio mota hau teoria keynesiar tradizionalak azal dezake.

– Krisialdiaren ondoren: krisialdiak eskaintza agregatua gutxitzeaz gain, bere hozte eta zurruntasuna eragiten du. Kasu honetan, eskari agregatu handiegia egongo da, baina ez bere barne-dinamikagatik, krisiak ere gogor jo baitzuen, eskaintza agregatuaren izozte handiagogatik baizik. Laburki esanda, eskari-inflazioa ulertzeko eskaintza faktoreetatik hasi beharra da. Eskaintzaren ekonomialariek, orduan, ekarpen handiak egin ditzakete arlo honetan.

Azken ohar bat: normalean, inflazio ziklikoa eskari-inflazioarekin berdintzen da. Zehatzago esatearren, eskariaren inflazio ziklikoaz aritu behar dugu, eskari efektiboaren igoera koiunturalek inflazioa sortzen dutenean (izan daiteke, adibidez, eskaintza agregatua maila berrira heltzen atzeratzen delako). Aldiz, eskari-inflazio estrukturala gertatuko da, eskaintza agregatuaren erorpen zorrotzak eskari agregatuaren maila handiagoak ekartzen ditutenean.

Hirugarrenez, argi dago kostu-inflazioaren aurrean kontuan hartu behar dena. Inflazioa ekonomiaren desoreka orokor bezala hartzen badugu, soilik azken prezio eta produktuak kontuan hartu beharrean prezio guztiak hartzen badira, horrela ez dugu ezer azaltzen. Ezin daitezke prezio batzuk beste prezio batzuen gain azaldu, inflazioak *guztiek*in baitu zerikusia. Prezio guztien multzoaren garapena azaldu behar da, ez bakarrik azken prezioena.

Kostu-inflazioari dagokionez, esparru sozioekonomikoetan gertatu dira arrazoi sinpleen eta partzialenak, soldaten «moderazioaren» beharra disko hondatuak bezala errepikatzen dutenak. Soldaten beherantzako zurruntasuna gaitz ekonomiko guztien jatorria dela ematen du.

Zentzu honetan, soldaten inflazioaren gainean jarritako gehiegizko arretari mozorroa kendu behar zaio. Erlazio ekonomiko sinple batzuekin adierazi dugun bezala, soldaten eta inflazioaren arteko lotura ez da batzuk ikusi nahi duten bezain zuzena eta sinplea. Azterketa sakonduz gero, inflazio-fenomenoaren konplexutasunaz ohartuko gara.

Orduan, zenbait galdera erantzun beharko ginituzke:

– Zergatik, teoria mailan inflazio-motak desberdintzeak erraza ematen badu, errealitateak eztabaida biziak pizten ditu?

Inflazioaren testuinguru batean, ekonomiaren prezio guztiak etengabe igotzen direnez (batzuk besteak baino gehiago, eta alderantziz) zaila da jakitea, hilabete edo urte baten buruan, zergatik igotzen diren ondasun eta zerbitzuen azken prezioak: ea soldata, irabazi edo beste kostu batzuk igotzen direlako gertatzen den.

– Zergatik sinplifikatzen da dena, soldaten inflazioari eutsiz?

Gero sakonduko dugun bezala, inflazioak ondasunaren berbanakuntzarekin zerikusi handia du. Norbaitek sinisten badu saltzen dituen produktu edo zerbitzuen prezioak direla inflazioaren errudun, ametituko du prezio horiek kontrolatuak izatea. Honek besteen egoera erlatiboa hobetuko du.

– Zer ekarpen dute datuek?

Ekonomiaren soldata-mailak neurteza ez da lan erraza. Negoziaketa kolektiboen bidez xedatutako soldatak dira neurgarrienak, baina pentsatu ohi den baino pisu espezifiko txikiagoa dute. Hau dela eta, datu guztiak erabili ohi diren baino erlatibismo gehiagorekin aztertu behar dira. Eskua sartzen hasita ere, estalketa argiak ematen dira, garai askotan argi ikusten baita irabazien igoerek erraz gainditzen dituztela neurgarriak diren soldaten igoerak. Adibide gisa, 85-89. urteetan Banco de Españak egindako txosten ekonomikoetan onartzen den bezala,

irabazien igoerek soldaten igoerak hirukoiztu edo laukoiztu zituzten. Hala ere, garai horretan irabazien inflazioaz barik, soldaten inflazioaz hitz egin zen.

– Orduan, sozialki eta teorikoki partziala al da soldaten inflazioan jarritako arreta?

“Soldaten moderazioa”-k gaitz guztien (inflazioa, langabezia, kanpo zorra, eta abarren) irtenbidea ematen du. Hau, teorikoki, zuzena izan daiteke, baina partziala da argi eta garbi. Zuzena izan daiteke soldata eta prezioen artean harremana dagoelako, soldata eta enpleguaren artean, edo soldata eta kanpo-zorren artean dagoen bezala. Baina ez da inoiz harreman zuzen eta zentzu bakarrekoa izango, sarri nahi den bezala. Ekonomia harreman eta elkar harremanen multzo bat da, laguntzen eta kontrajartzen diren efektuen multzoa. Ekonomian ezin daiteke inoiz esan «X betetzen denean, Y lortuko da». Sinpleegia da eta ekonomiak eztarria izan balu gogo biziz barre egingo zukeen. Harreman ekonomiko bakoitza gezi grafiko batez adieraztekoan, soldatetatik beste edozein aldagai ekonomikotarantz gezi negatiboak azaldu bide dira; izan ere, geziak amai-gabe errepikatuko lirateke eta sarritan kontrajarriak izango lirateke.

Halere, gaitz guztien errua soldatena dela dioen adierazpena egunetik egunera indarra hartzen doa. Interesaturik dauden talde sozialak egoera berdinean egotekotan, hau ez litzateke kezkarria izan behar. Egia esateko, maila batean denok desitxuratzen dugu errealitatea gure interesak defendatzeko. Arazoa sortzen da edozein taldek aurkakoak baino botere gehiago duenean bere argudioak zabaltzeko, eta azken finean, inposatzeko.

Laugarrenez, inflazio estrukturalaren azterketa, zalantzarik gabe, eragozpen gehien azaltzen duena da; baina hau arrazoi ekonomikoen errua baino, ekonomialarien errua da. Egitura kapitalistak bere baitan hutsak dituela onartu nahi ez izateak zera ekartzen du: desoreken azalpen estrukturalak kontuan ez hartzea eta bakarririk ukaezinak direnean onartzea.

Hori dela eta, inflazioaren azalpen estrukturala, lehenengo aldiz, Hirugarren Mundu edo Hegoaldean antzeman zen. Hemengo herrialde askotan eskari- eta kostu-inflazioa ezinezkoa izanik (herriaren gehiengoaren soldadak eta eskarirako gaitasuna ia hutsak izanik), nola heltzen ziren orduan arrapaladako inflazio edo hiperinflazioa izatera? Azalpena kolonialismo garaietatik bereganatutako egituretatik etorri zen.

Geroago, Hegoaldean onartua izan arren, inflazio estrukturala ez zen Lehenengo Munduan aitortzen⁷. Gaur egun, oraindik, erraz aurki ditzakegu ideia hau onartzen ez duten autoreak edo, onartzekotan, partzialki onartzen dutenak. Honela, Hegoaldeko herrialdeetan ikusten diren zurruntasunen zerrenda egiten dute, eta ez Iparraldean ikusten direnena.

Hala ere, inflazioaren azalpen estrukturalak egitearen beharra oso garrantzitsua da. Epe luzean xedatutako inflazio-joerak direla eta, bere burua baliagarritzat jotzen duen edozein teoriak ezaugarri estrukturalak kontuan hartu beharko ditu.

Horregatik, azpimarratu behar da inflazioaren azalpen estruktural erreale

bat lortzeko kapitalismoaren egitura ekonomikoa bera hartu behar dela oinarritzat, eta ez dela zorrotasun estruktural eta partzial ezberdinen zerrenda luze edo labur bat egin behar.

Ikusi ohi dugu inflazioari buruzko teoria garrantzitsuenak partzialak edo superfizialak direla, banaka aztertuz gero. Bestalde, egungo inflazioaren teoriariek gero eta joera handiagoa dute teoria ezberdinak batera aztertzeko.

Aurretik ikusi dugun bezala, gaur egun eskari-inflazioa eta kostu-inflazioa, inflazio-prozesu bakar baten fase kontsekutibo eta errepikatu bezala hartu nahi dira. Gainera, autore monetaristek aktibitate erreala gero eta gehiago ukitzeko joera dute, espektatibak oinarritzat hartuz, inflazioaren logika azaltzeko.

Hau guztia, adarketa konplexuak dituen fenomeno partzialki eta ikuspuntu desberdinetatik azaldu nahi delako gertatzen da. Horren erruz, teoria tradizionalak elkar teilakatzen dute, nahiz eta adarketa konplexuak izan, fenomeno bakarra delako. Eskari erreala ez al da ordaintzen agente ekonomikoen moneta-ordainekin, hau da, produkzio-kostuekin? Aurretiko inflazioa ez al da agenteen jokaeraren deskripzioa, bere egungo ordain errealek eta bere etorkizuneko eskaria mantentzeko? Orduan, ez al da posible alde desberdinak bakoitzaren ikuspegiarekin ikusi barik, era oso batez aztertzea?

Bai, posible da: inflazioak adarketa desberdinak baditu ere, zalantzarik gabe, logika bakar bati erantzuten dio. Inflazioak erro asko baina buru bakarreko olagarro bat gogorarazten digu.

7. Huts estrukturalak onartzea ez da atsegina, Lehenengo Munduak arazo estrukturalak dituela onartzea kapitalismoaren baitan zerbait txarto doala aitortzea izango bailitzateke. Egungo krisialdia koiunturala barik, estrukturala dela onartu ere ez zen hasieratik egin.

Gure nahia logika bakar hori ulertzeko aurrerapausoak ematean datza.

3.2 Jatorrizko puntu ezberdin bat

Aurreko puntuetan egindako kritikak kontuan hartuz, inflazioaren teoria integral batek zera egin beharko luke:

1. Oinarrizko bat edo bi ideiarekin inflazioaren alde desberdinak azaldu.
2. Ondorioz, teoria integral honetatik beste teoriak bereizi, eta bere teilakaztea ere azaldu.
3. Guztiz estrukturala izan.
4. Eta, azkenik, irakurketa politiko-ekonomikoak egiteko aukera eman.

Teoria honetara hurbiltzeko asmoz, ohizkoa ez den jatorrizko puntu bat hartzen dugu. Arazoa konpontzeko, gure aukera ekonomian prezio aldagaiaren zentzua bilatzean datza.

Hasteko, galdera bat egin beharra dago: prezioa, zer da? Prezioa produktu edo zerbitzu baten balioaren neurria da moneta-unitatetan. Honek ondorio garrantzitsu bat dakar: prezioa ekonomiaren moneta-esfera eta erreala lotzen dituen aldagai mikroekonomiko konkretua da.

Bestalde, neurri hori, prezioa, subjektuen elkarrekintza ekonomikoak aurrera eramateko beharrezkoa da. Inoiz, prezioak ez baditu produktuak eta zerbitzuak era errealistan neurtzen, subjektuen elkar-eraginak ezin izango dira erraz aurrera eraman.

Honek guztiak egiaztapen bat egitera garamatza: inflazioa, batez ere, ekonomiaren esfera errearen eta monetarioaren arteko artikulazioarekin zerikusia duen desoreka makroekonomiko bat da. "Artikulazioa" esaten dugu; ez dugu esaten esfera monetarioare-

kin lotuta dagoela, alde batetik, eta esfera errearekin bestetik.

Jarraitzeko, zer esan nahi du prezioak, maila sozioekonomikoan? Prezioa baliabide ekonomikoak banatzeko bide bat da, hau da, berbanakuntza sozioekonomikoa egiteko baliabide bat. Agente baten egoera ekonomikoa bi alde zehaztuko dute: bere ingresuak eta egiten dituen ordainketek. Eta bi alde hauek prezioek determinaturik daude. Langile arrunt baten ingresuak, adibidez, bere soldataz mugaturik etorriko dira (bere lanaren prezioa); eta gastuak, erositako produktuen prezioez (azken prezioak), interes tipoaz (eskatzen dituen kredituen prezioa), etab. Akziodun batentzat, ingresuak dibidenduak izango dira (inbertsioaren arriskuaren prezioa), eta aldi berean, gastuak beste prezio-mota batzuk izango dira. Antzekoa gertatzen da beste edozein agenterekin.

Ezin da ukatu agente batek ekonomian iharduten duenean ongizate maximoa lortzeko izaten dela. Honela, agenteen oinarrizko iharduera ekonomikoa zera izango da: kobratzen dituzten prezioak altuak izatea, eta ordaintzen dituzten prezioak baxuak izatea.

Oso zaila suertatuko litzateke gurekin elkar harremanetan dagoen agenteari, ordaintzen diogun prezioa jais-taraztea. Erlatiboki errazagoa da hone-la jokatzeko ihardutea: geuri ordaintzen dizkiguten prezioak, guk besteei ordaintzen dizkiegunak baino gehiago igotzea. Horregatik, agenteen ihardue-ra ekonomikoak tentsioak sortzen ditu prezioetan.

Agente ekonomikoek prezioan duten iharduera hau, esfera errealean bezala esfera monetarioan gertatuko da, prezio-aldagaia bere lotura delako.

Gauzak honela, ekonomiaren iharduera antolatu bat prezio-igoeren jokaera egonkorrari lotuta egongo da, hau da, ekonomiaren moneta-fluxu eta fluxu errearen arteko oreka zehatz bati lotuta. Ulertu beharra dago ekonomian gertatzen diren prezioen igoerak ez direla berez negatiboak izango, agente ekonomikoak produzitzera eta elkartrukea egitera bultzatuko baititu⁸.

Arazoa da, nahiz eta hasieran jokaera egonkorrean egon, esfera errearen eta monetarioaren arteko artikulazioa erraz apurtzen dela. Arrazoiak zenbaezinak izan daitezke. Prezioen igoerek, orduan, agenteak harreman ekonomikoetan elkar eragitera bultzatu bakarrean, kontrakoa egiten dute. Denbora pasatu ahala, iharduera ekonomikoa erdi-hilda eta itota geratuko da. Kasu hau gertatzen denean bakarrik esan dezakegu inflazioko egoera ekonomiko baten aurrean gaudela⁹. Bere ezaugarri argiena, prezioen arrapaladako egoera izango da, baina ez bakarra.

Bururatzeko zaigun hirugarren galdera hau da: nahiz eta hasieran arrazoi zenbaezinek hasi prozesua, nola uler daiteke moneta-esferaren eta esfera errearen arteko oreka hain erraz apurtzea? Galdera honi erantzuteko, prezioaren esanahi ekonomikoari eutsiko diogu berriro. Edozein arrazoiengatik, agente ekonomikoen talde batek (langileek, enpresariak, rentistek, burokratek...) kobratzen duen prezioaren igoera lortzen duen mementuan, beste taldeen egoera erlatiboari kalte egiten dio. Beste talde hauek, orduan, eurak kobratzen duten prezioak igotzen saiatuko dira, bai galdutako egoerara itzultzeko, bai eta beste hobe batera

heltzeko. Logika honek inflazio-espinala beste era batera ulertzera garamatza.

3.3. Inflazio-espinala

Inflazioa, errenta banatzeko gizarte-talde ezberdinen arteko borrokaren isla garbia da. Fenomeno honi buruzko hasierako ikaslanak Joan Robinson ekonomialari britainiarrak egin zituen, eta gero tankera desberdinetako autoreek garatu dituzte (ikus Zawadzki 1974, edo prezioen gaineko "mark-up"en jarrerak, kostu-inflazioa eztabaidatzen duten ekarpenetan). Orain dela gutxi, OCDEren txostenek ere onartu dute inflazioaren azterketan soldata eta irabazien zati erlatiboaren garapen ziklikoa kontuan hartzeak garrantzia duela. Halere, ekarpen hauek ez dute egoki azaltzen nola sortzen duen agenteen borroka-prozesuak inflazioa eta, azkenik, ekonomia erdi hiltzen duen.

Gai hau ulertzeko, prezioak banakuntza egiteko bide bat direla azpimarratu behar da berriro. Prezioak ez dira azken produktu edo zerbitzuen prezioak bakarrik, soldatak edo alokairuak ere badaude (lan-merkatuaren prezioa), alogerak (etxebizitzaren prezioa), dibidenduak (enpresen arriskuen prezioa), zergak (sektore publikoan lan egiten duten guztiei ordaintzen zaien prezioa)... Eta, esan dugun bezala, prezioa aberastasuna ekonomikoki lortzeko bide bat da: produktuen prezioa enpresarietako aberastasuna edo errenta eskuratzeko erabiltzen duten bidea da, soldata langileen ordaina izango da, diruaren prezioa edo interes tipoa bankariena, etxebizitza edo alogeren prezioa errentadun batzue-
na, etab.

8. Horregatik, adibidez, krisira arte prezio-egonkortasunaren helburua % 2 inguruko gorakada zen.

9. Moneta-esparruen eta esparru errearen arteko desoreka kontrakoak izan daitezke eta deflazio egoera bat ekar lezakete, egungo kasua ez izan arren.

aurrean aurkitzen gara. Urratsez urrats, subjektuen asmo ekonomikoak garatu ezinezkoak bihurtuko dira eta ekonomia izoztuz joango da.

Bestela esanda, prezio-neurria errealista den bitartean, ekonomia hazten joango da. Agenteak haien iharduera ekonomikoa egiten jarraitzera bultzatzen dituen prezioen igoera gertatzen da. Borroka-prozesuak irreal bihurtzen badu prezio-neurria, orduan elkarrekiko harreman ekonomikoak ezin izango dira burutu, eta ekonomia irteerarik gabeko kale batera helduko da. Eta prezio-neurria irreal izango da, ez da funtzionala izango, orokorki lortu diren prezio-mailek ez dutelako atzean sostenga ditzaketen produktu edo zerbitzuak, hau da, ez dutelako atzean iharduera erreal nahikorik.

Aurreko puntuan eta honetan esaten dugunari konklusioa ateraz, inflazioa esfera erreala eta monetarioaren arteko desoreka bezala hartu behar dela esan dezakegu. Agenteek prezioen aurrean irabaziak maximizatzeko duten portaerak sortzen du desoreka hau, honek gorakadarako espirala eragiten duelako euren arteko prezioetan.

Ikus dezagun orain ikuspegi hau inflazioaren ikuspegi integral bateranzko lehenengo pausua izan daitekeen ala ez, bere alde desberdinak, eta teoria tradizionalen akatsak eta solapamendua azalduz.

3.4. Inflazioa ulertuz. Ondorio teorikoak

Inflazioaren fenomenoari egin diogun harrera berri honen ondorio garrantzitsuenen artean, hauek aipa genitzake:

1. Baieztapen sinpleegia litzateke inflazioa prezio-igoerarekin pareka-

tzea, teoria tradizionalak egiten duten bezala. Inflazio-prozesuaren ondorio garrantzitsuena prezioen igoera da (errentaren berbanakuntzarekin, inbertsio eta produkzio-bihurdurekin, etabarrarekin batera), baina orokorra eta etengabea izan arren, prezio igoera guztiak ez dira inflazioa. Inflazioa lehen aztertu dugun ekonomiaren akogotatzea gertatzen denean bakarrik izango da. Ez al da egia ekonomialari askok aitortzen dutela zero inflazioko ekonomia ez dela batere komenigarria?

Kasu horretan, inflazioaz aritzera-koan prezioak aipatzea ez dago gaizki, lotura estua baitute. Prezio-indizeak ere inflazioaren aldagai neurgarritzat onar daitezke, baina ezin dugu ahaztu inflazioa hori baino fenomeno konplexu eta misteritsuagoa dela.

2. Funtsean, inflazioa ekonomiaren iharduera errearen eta monetarioaren arteko desoreka denez, moneta-eguzgarri asko ditu. Moneta-eskaintzaren igoera inflazioa egoteko beharrezko baldintza dela onar dezakegu, baina hau ez da inoiz arrazoi edo azalpen bakarra izango. Banku-dirua sortzeko prozesua sakonki aztertzen bada –batez ere M_3 edo handiagoa den neurria erabiltzen badugu– moneta-masa, hain zuzen ere, agente ekonomikoen iharduerarekin batera hazten dela ikusiko da (iharduera honek banku-gordailuak gehitzen dituelako).

Gogoeta hauek moneta-inflazio eta inflazio errearen ezaugarriak batera aztertu behar direla erakusten dute. Dauden teorien arabera, konklusioa argia da: fenomeno honen monetal-erredukzionismoa, erabat partziala izanik, ez da onargarria.

3. Azter dezagun orain gure ikuspegiaren beste ondorio bat: agenteek

ekonomian larregi eragiten badute, prezioak gehiegi tentsionatuko dira. Horregatik, ekonomia oso aktibo eta beroak, edo berdina dena, eskari agregatuaren igoerek, inflazioa sortzen dute. Era berean, espektatibak edo beste arrazoiren bat dela medio, agenteek gutxi sortu edo elkar trukutzen badute, prezioetan tentsio gutxi ondorioztatuko dira (baina aktibitatea txikia izan arren prezioak igo egingo ditu beti). Horrexe-gatik, oso aktiboa ez den edo "hotza" den ekonomia inflazio txikiagoa sortarazten du. Hau izango litzateke, azken finean, inflazioaren ezaugarri ziklikoa.

Eskari-inflazioaren teoriariek hemen zuzenki azaltzen dugun ezaugarri ziklikoa aztertzen dute, baina zeharka eta bigarren mailako gaitzat hartuz. Agenteen jokaerak eskari agregatuan sortzen dituen ondorioak aztertzen dituzte teorikoek, hau da, efektuak, eta ez kausak.

4. Honetaz gain, ekonomia fenomeno konplexua denez, erraz uler daiteke aipatu agenteen jokaerarekiko exogenoak diren hamaika arrazoi daudela prezio zehatz bat edo ekonomiaren prezio-multzo bat igotzeko (Japoniako lurrikara batetik Errusiako landa zabal-tan suerta daitekeen uzta txar batera). Hortaz, prezioen hasierako tentsioa exogenoa izan arren, pertsona zehatz batzuek bere egoera erlatiboa hobetuko dute. Besteek, galdutako egoera berreskuratzeko, edo, koiuntura aprobetxatuz, bere egoera erlatiboa are gehiago hobetzeko, bere esku dagoen guztia egingo dute.

Eskola neoklasikoak ekonomian eskaintzaren gain gertatzen diren shock exogenoen inplikazioak aztertu ditu. *Eskaintzaren ekonomialariak* deitzen dira gai honen aztertzaileak, eta Lawrence R. Klein da beren adierazpen

argiena. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik, inflazio-desorekak azaltzeko, autore hauek kanpo-shock baten aurrean eskaintza agregatuaren zurruntasuna aztertzeari ekin zioten (ikus García Lizana eta Martín Reyes 1990). Baina, berriz ere, azpimarratu behar dugu azterketa hau bigarren mailakoa eta zeharkakoa dela. Gainera, erraz jotzen du lan-merkatuaren zurruntasunetara. Ez du ikusten shock exogeno baten eta inflazio-tentsioen arteko elkar harremana zuzena eta sozialki orokorra denik, gure analisisian bezala, eta ez dela lan-merkatura mugatzen.

5. Ikuspegi berri honek teoria tradizionalak inflazio-espilari buruz egiten dituen azalpenei ere aurre egiten die. Alde batetik, ez dio soilik eskari- eta kostu-inflazioen elkarrekintzari eskaintzen ulermen-esparru bat, inflazio-tentsio guztien edozein elkarrekintzari baizik.

Bestetik, eskari- eta kostu-inflazioen elkarrekintza azaltzeko erabiltzen diren agenteen portaerak ere orokortu egin behar dira. Espektatiben rola, aurretikazko inflazioa, etorkizunaren aurrean defendatzeko agenteen estrategia konkretu bat besterik ez da. Aurreko apartatuetan lortu dugunak, aldiz, defentsa-estrategien beharra eta logika azaltzen ditu.

6. Errentako egoera erlatiboen aldeko borroka-prozesua dinamika ekonomikoaren baitako fenomeno bat da. Hau da, epe luzera gertatzen den sistemaren ezaugarria da. Honela, inflazioaren alde estruktural bati heltzen diogu.

Ikuspegi bateratzaile honek akats estrukturalen "zerrenda" ezberdinak ulertzen laguntzen digu logika bakar

baten bidez: protekzionismoa, banakuntza-sektorearen bitartekaritza, inportaturiko inflazioa, enpresen kontzentrazioa... Hauek ez dira subjektuek, subjektu-taldeek edo herrialdeek egotzera ekonomiko hobeagoa lortzeko egiten dituzten saiakerak baizik.

Ikuspegi estruktural honetatik, garai eta herrialde bakoitzeko inflazio konkretuak aztertuko dituen lan orok hartu beharko luke kontuan: prezioen garapena ikusi behar dela, ordaina jasotzen duten azken subjektuen aztarnei jarraiki.

Zentzu honetan, inflazioaren ikuspegi integral honek krisialdiari buruzko teoria estruktural batzuekin katea egiten du. Funtsean, esfera errealekiko finantzia-esferaren gairak finantzia-esferaren gairak egungo inflazioaren oinarritzat jotzen duten autoreak defendatzen ditu. Bestalde, desartikulazio honen ondorioak ikusten laguntzen du, bai ordainketa-balantzaren eraketan, bai ganbio-tipoen lurrunkortasunean, bai herrialde industrial berrien sorreran, etab.etan.

Ikuspegi integralak leku-ezberdintasunak ere biltzen ditu. Adibide gisa, Hegoaldeko zenbait herrialde ditugu euren "hiperinflazio" edo "arrapaladako inflazioarekin". Huts estruktural desberdinez gain, ukazina da Lehengo Mundutik barneraturiko inflazioaren (gogora dezagun Emmanuelen elkartruke ezberdinaren teoria), edo errenta lortzeko borroka sozial gehiegizko baten rol negatiboa. Hurrengo ere ikusgarria da: Euskal Herrian borroka soziala estatuaren beste puntuetan baino biziagoa izanik, bere inflazioa beti da batezbestekoa baino altuagoa.

7. Ikuspegi honek, lehendabizi, inflazioaren fenomenoaz azaltzeko balio du (finantzia-esferaren gairak finantzia-esferaren gairak bezala gauzatuko da hau). Baina, bigarren, deflazioa ere azal dezake, elkartruke errealeko aurreko moneta-infradimentsionamendua izango litzatekeena (gogoratu, adibidez, higiezinaren merkatuaren papera 1929.eko krisialdiaren azalpenetan. Ikus Galbraith 1964).

Laburbilduz, inflazioa prezioen gain ematen diren agenteen jokoak sortzen dituen esfera ekonomikoaren desoreka bezala ikusi dugu; eta ikuspegi horren eragin teorikoak frogatu ditugu. Horrek inflazio-fenomenoaren alde desberdin guztiak ulertzeaz gain, inflazioari buruzko teoriak elkar-eragina eta banakako hutsak ulertzen ere laguntzen du. Inflazio ziklikoa eta estrukturala, inflazio-espinala eta inflazioaren garapen ezberdinak historian eta espazioan: guztiak biltzen dira azalpen-rako logika bakar batean.

Emandako bira honen guztiaren azken pausoa inplikazio politikoak aztertzea litzateke. Baina hori, literaturan idazten den bezala, beste lan baterako istorioa da.

3.5. Inplikazio politiko-ekonomikoak

Inflazioari aurre egiteko egungo politika

Krisialdian, ekonomi politika tradizionalen *Stop and Go*-ren gaitasun falta agerian geratu zen. Urratsez urrats, politika ekonomikoaren bilduma (makropolitika koiunturalak, mikropolitika estrukturalak eta errenten politika) behin eta berriro zehaztu joan da prezioen egonkortasuna bilatzeko. Azken hau krisialdia gairak gairak baldintza garrantzitsuena bezala hartzen zen.

Zehazki, aldaketak hauek izan dira:

1. Merkatuan akatsak zituzten egiturak garbitzeko mikropolitika multzo aberatsago eta indartsuagoa erabili zen. Prezioen egonkortasunari dagokionez, politika hauek, arrakastatsua izatekotan, egitura ekonomikoa eraginkorragoa egingo zuten eta beraz, prezio baxuagotan produzitzea ere utziko zuten.

2. Inflazioari aurre egiteko irizpide mugatzaileak inposatuko ziren, egonkortasun koiunturaleko makropolitikaren gainetik (zerga- eta moneta-politika). Orduan zerga-politika hau borrokatzeko, moneta-politika indartsuena aukeratu eta nagusitzat hartuko zen. Honela eskari agregatua eta iharduera ekonomikoa ahultzea lortuko zen, baita prezioen tentsioak apaltzea ere.

3. Errenta-politikak (hitzarmen sozialerako era desberdinak) errentaren berbanakuntzari barik prezioen egonkortasunari lehentasuna emateko presioa.

Politika-osaketa berri honek porrot egin du, mementuz, nazioarteko ekonomia krisialditik ateratzeko helburuan.

Eskari agregatuaren politika tradizionalak, joera mugatzaile bat jarraitu arren, iharduera hedakorriaren ekimenak diote batzuetan, dauden interes sozialerako alde egin nahian. Fenomeno hau, batez ere, zerga-politikan gertatzen da (hauteskunde aurreko garaierako gaitzak hazi, eta hauteskundeak pasa eta gero kontrolatu egiten dira).

Mementuz, erabilitako moneta-politika mugatzaileek inflazioa apaltzea lortu izan dute, baina honek esfera errearen eta monetarioaren arteko desoreka areagotu duen ekonomiaren hoztea ekarri du (interes-tipo altuek esfera

errearen krisialdia areagotzen dute eta esfera monetarioaren sobredimensionamendu eta desligamendua bultzatzen dute). Gainera, moneta-politikaren arrakasta ezin daiteke oso handia izan neurri koiunturala delako, inflazio koiunturalak bere pisu espezifikoa gutxitzen duen unean.

Itxaropena kostu-inflazioa ahultzeko gai den errenta-politikan aurkitzen da beti. Hitzarmen sozialak, hedapen-garaieran, errenta-politikari bide ematen zuten (hurrengo gaia) baina politika ekonomikoen irizpide mugatzaileak hitzarmen hau deuseztu du (defizit publikoa jaisten saiatuz eta enplegu betearen lehentasuna ahaztuz).

Inflazioaren kontrako borrokarako planteamendu berria

Laurogeiko hamarkadatik, politika ekonomikoa irizpide mugatzaile indartsu bati oso lotuta egon zen, prezioen egonkortasuna lortzeko asmoz. Irizpide honek gaitzespen ugari izan zituen, ekartzen zuten ekonomiaren hoztea zela eta.

1994. urtean, herrialde desberdinetan, inflazio-indizeetan lortzen ziren arrakastek politikari suspertze hedakorra ematearen ideia indartu zuten. Estatu Batuak, eragin sasi keynesiarra duen Bill Clinton buru izanik, bere interes-tipoak jaisten joan ziren. Alemaniak ere, bestalde, bide honetan aurrerapausoak ematen zituen.

Zoritxarrez, garai honetan ekonomia fluktuazio hedakorrean sartu zen eta honek inflazio-joerak ekartzen ditu beti. Inflazio joera hauek aurrikusiz, Estatu Batuetako Erreserba Federalak interes-tipoak berriro igo zituen, beste herrialdeak bere atzetik eramanez (hau bere kapital-sarrerak ez galtzeko egin

zuen. Kapital-sarrerek, interes tipo altuak, moneta indartsua eta finantzia-baloreak erakargarriak diren lekuetara jotzen dute beti)¹⁰.

Laburki esanda, interes-tipoen joera aldaketa ez zen egonkorki finkatu. Egia da, azken urteotan, interes-tipoek beherantzako joera izan dutela, baina hau oso desegonkorra izan da.

Beti ere produkzio-egitura ez da espero zen bezala suspertu. Gai hau kezagarria da. 96. urteko erdialdean ekonomia zabalkuntzan mantentzen da, baina zabalkuntza honek politika ekonomikoaren eragiteari barik koiunturaren fluktuazioei erantzuten die. Krisialdi luze honetan, interes tipoen gaineko iharduera hedakor batek eragina izango badu luzarokoa izan behar du. Subjektuak produkzio-inbertsioen arrakastan dituen beldurrak handiak dira.

Orduan, zer da beharrezkoa politika ekonomikoan joera-aldaketa egonkorki finka dadin? Lehenengo eta behin, nazioarteko kontzientziak bi faktore hartu behar ditu kontuan: a) politika ekonomikoen konpetitibitateak ez du ezertarako balio; b) inflazioari aurre egiteko politika erradikalek duten miopia onartu.

Lehenengo faktorea aztertuz, egungo politika ekonomikoak elkarrekin borrokatzen ari direla egia dela baieztatu dezakegu. Krisialdi eta eskastasun garaietan, ahalbide eta etekin gehien lortzea da asmoa, zure ondokoa kontuan hartu gabe. Ekonomia gero eta internazionalagoa egiten da, merka-

tuak gero eta zabalagoak dira. Horregatik, estatuen egoera hobetu edo okertu egingo da kanpoan saltzen dutenaren arabera da. Herrialde batek ezin du joko honetan sartu ala ez erabakitzen denbora galdu: ez bada argi ibiltzen eta mugak zabalik uzten baditu, kanpoko konpetentzia gero eta handiagoa jasan behar izango du. Hau dela eta, gero eta konpetentzia internazionalagoa duen eremu honetan, bere inflazioa nazioarteko mailan hobeto kontrolatzen duenak egoera hobea izango du: kanpoan ahal duen gehiena salduko du eta barne-merkatuak gordeko ditu.

Hau da, antzinean krisialdi kapitalistak tentsio protekzionistaren eta gogorragoak ziren guda komertzialen garaiak ziren. Gaur egun politika ekonomikoa garrantzitsuagoa denez, guda komertzialari politika-ekonomikoaren guda batu zaio. Eta edozein estatu indartsu bere ekonomia hoztearen alde agertzen bada, beste herrialdeek jarraitu egin beharko diote. Ekonomian guztiak gabiltza tren berean: sugurdia astiroago badoa, beste gurdi guztiak ere astiroago joango dira.

Baina inflazioa “gehiago” kontrolatzeak ez du “hobeto” kontrolatzen dugula esan nahi. Esportazio-sektoreak edo nazioarteko konpetentzia gehien jasaten duten sektoreak hobetzen baiditugu, baliteke ekonomiaren beste sektore askorekin amaitzea.

Aurretik aipatu dugun bezala, bigarren faktorea inflazioaren aurkako politiken begilauso historikoan datza. Gaur

10. Hemendik dependentsia ekonomikoari eta espekulazioari buruzko ondorioak atera daitezke. Orokorki, ekonomia mundialaren erreaktibazioak herri boteretsuetan hasten dira (Estatu Batuak edo Alemania kasu), eta gero beste herrialdeetara zabaltzen dira. Herri boteretsuak, erreaktibazioak pairatzen dagoen heinean, politika mugatzaileak ezar ditzake. Baina, esparru errealistik kanpoko espekulazioa eta moneta-jarioak jario errealak baino arinago ibiltzen dira. Horregatik, erreaktibazioa heldu baino lehen, beste herriek kapitalak aldegiten ez ikusteko, politika mugatzaileak ezartzen hasi beharko dute.

egun dagoen inflazioaren aurkako borrokaren birplanteamendua irrealismo honetan oinarritu barik, inflazio-indizeak hobetzetik datorrela gogoratu behar da. Eta, berez, kapitalismoan zehar emandako inflazio-garapena aztertuz gero, egungo politika ekonomikoak zentzu edo ikuspegi historikorik ez duela arrazoitu daiteke. Kapitalismoaren lehenengo aldietan, hedapenak inflazioarekin batera gertatzen ziren eta depresioak deflazioarekin batera (prezioen jaitsieran atzematen den desoreka ekonomikoa). Guda bitarteko trantsizioa eta batez ere Bigarren Mundu-gerraz geroztik, inflazio-joerak gero eta indartsuago agertzen dira eta deflazio-joerak desagertuz doaz. Azken hauek ekonomiaren sektore batzuetan baino ez dira agertuko. Dagoeneko gogorra den egungo inflazio-krisialdia ekonomian finkatzen da.

Berez, kapitalismoaren historiari so eginez konklusio honetara heltzen gara: prezio-igoera handiagoak egiteko joera dagoela. Ilogikoa irudi daiteke, orduan, egungo politikak aurretik emandako inflazio-indizeak bezain indikatzaile baxuak bilatzea. Ekonomi begilauso hau ezin da zuritu eta krisialdiaren iraunkortasuna azal dezakeen faktoreetariko bat izan daiteke.

Nola konpondu hau? Baieztapen hau onartuz gero, politika ekonomikoaren konpetitibitatea desagertaraz dezaketen nazioarteko itunak gara daitezke. Moneta-politikan lortu diren nazioarteko hitzarmenak ezin dira alde batera utzi. Hauetan, ez lirateke gobernuen partaidetza eta iharduera politikoak beharrezkoak izango, prozesu honen oinarri Banku Zentralak izango lirateke; gero eta autonomia handiagoa izango lukete.

Hala eta guztiz ere, gai hau lasaitasun osoz ukitu beharrekoa da. Antoni Gramscik esan zuen bezala, krisialdia ondokoa da: egitura berriak sendotu aurretik, egitura zaharrak deuseztuz joaten diren trantsizioa. Zentzu honetan, inflazioaren ikuspegi integralerantz emandako pausoetatik ondorioztatzen den bezala, egungo krisialdiak esfera erreala eta finantza-esferaren arteko artikulazioan trantsizioa dakar. Ekonomiaren finantza-esfera etengabe handitzen da eta aldaketa hau ez dute oraindik egitura kapitalista berriek onartzen. Prosezua arintzeko asmoak alde batera utzita, aurriku daiteke inflazio-tentsioak amaitzeko, bi esfera ekonomikoek erlazio sistemiko berria lortu behar dutela.

4. Konklusioak

Inflazioa prezioen gorakada simple bezala hartzeak ez du laguntzen bere logika ulertzen laguntzen. Ekonomiaren desoreka konplexu eta sakon bezala hartu behar da, bere prozesu-ikuspegiari garrantzi handia emanaz.

Zentzu horretan, inflazioaren ohizko teorien eraberritzeak, alde batetik, azalpen koiunturalen batasun eta nahasketa gero eta handiagoa du; eta bestetik, egiturazko azalpenen behar handia. Lan honetan bi behar hauei erantzun zaie.

Ez-ohizko abiapuntu bat hartzen dugu ikerketarako. Lehenik, prezio-aldagaiaren funtzio mikroekonomikoa aztertzen dugu: produktu eta zerbitzuak batasun monetarioetan neurtzen ditu, subjektuen elkarrekintza ekonomikoak gerta daitezzen bide eginez. Bestetik, bere zentzu ekonomikoa sakon-

tzen dugu: ekonomikoki prezioa banakuntza-aldagai bat da eta, beraz, ekonomi agenteen portaerak jasango ditu, ahal den aberastasun gehien lortzeko asmotan. Portaera hauek, prezioaren funtzio mikroekonomikoa bide delarik, esfera erreal eta monetarioaren arteko artikulazioaren desoreka ekarriko dute. Horrela defini dezakegu, hain zuzen, inflazioaren fenomenoa.

Agente ekonomikoen portaera hauek tentsio inflazionistak nola ekartzen dituzten ulertzeko unean, ekonomialari batzuek azpimarratutako gizarte-klase eta -taldeen borroka oinarritzkoa da. Batez ere, zera da gertatzen dena: bilatzen diren prezio-mailak erabat irrealak bihurtzen direla, hau da, ez

dutela betetzen bere zeregin konkretu nagusia: produktu eta zerbitzu errealak batasun monetarioetan neurtzea. Makroekonomikoki, esandako esfera erreal eta monetarioaren arteko artikulazioa apurtzen du horrek.

Horien guztien ondorio teorikoak hauek dira: a) inflazioaren alde desberdinak azaltzen ditu eta, bide horretatik, dauden teoria desberdinak; b) bere izaerak egiturazko aspektuak barneratzen ditu; c) inflazioaren egoera historiko eta espazial desberdinak ulertzeko balio du; d) kontsiderazio politikoak egiteko ere baliagarria da. Hau guztia bi edo hiru funtsezko ideia-tan oinarritzen da, hau da, inflazioaren teoria integral bat dugu aurrean.

Bibliografia

- Brofrembrenner, H. eta Holzman, F.D., (1963): "Survey of inflation theory", *American Economic Review*, iraila.
- Burton, J., (1974): *Inflación de salarios*, Macmillan, Vicens-Vives, Bartzelona.
- Fernández Díaz, A., (1987): *Política Económica Coyuntural*, Ed. AC, Madril.
- Frisch, H., (1977): "Inflation theory 1963-1975: A second generation survey", *Journal of Economic Literature*, abendua [Gaztelaniazko bertsioa: *Información Comercial Española*, 541, iraila, 1978].
- García Lizana, A. eta Martín Reyes, G., (1990): "Los nuevos planteamientos ante la crisis económica" in *Ensayos de Política Económica*, Edinford, Madril.
- Gordon, R. J., (1976): "Recent development in the theory of inflation and unemployment", *Journal of Monetary Economics*, 2.
- Hayek, F. A., (1976): *Inflación o pleno empleo*, Unión Editorial, Madril.
- Huston McCulloch, (1975): *Money and Inflation. A Monetarist Approach*, Academic Press.
- Johnson, H., (1967): "A survey of theories of inflation", in *Essays on Monetary Economics*, Harvard University Press.
- Leidler, D., eta Parkin, M. J., (1975): "Inflation; a survey", *Economic Journal*, abendua. [Gaztelaniazko bertsioa: *Información Comercial Española*, 521, urtarrila 1977].
- Obregón, C.F., (1989): *Controversias económicas contemporáneas*, Trillas.
- Piore, M., (1983): *Paro e inflación*, Alianza Editorial, Madril.
- Sampedro, J. L., (1985): *La inflación en versión completa*, Montesinos.
- Zawadzki, K. K. F., (1974): *La economía de los procesos inflacionarios*, Labor, Madril.